

Atez ateko zabor bilketa kolokan

■ Ezker abertzaleko zinegotzien ustez ez da Lasarte-Orian sistema hau jarriko ■ Udaleko PSOE eta EBren arteko desadostasunen ondorio da ■ PPK izan ezik beste alderdiek onartu zuten 2008an

Atez ate zaborra biltzeko egitasmoa ez da Lasarte-Orian martxan jarriko, Ezker Abertzaleko zinegotziek salatu dutenez. Iazko martxoan Udalak, gehiengo osoz, (soilik PPK eman zuen aurkako botoa), ontzat hartutako erabakia bete dadila eskatzen dute Joxe Goikoetxea, Txanpi Baztarrika eta Itziar lartza zinegotziek. Argi eta garbi esan dute: "Gobernu batzordean sortu diren desadostasun politikoak tarteko, Lasarte-Orian ez da atez ateko zabor biltzarik egingo".



Astearte arratsaldean Baztarrika, lartza eta Goikoetxea eskuetan atez ate zaborra biltzeko ontziak dituztelarik.

Lasarte-Oriako Udalak ez du oraindik atez ate zaborra biltzeko sistema Lasarte-Orian jarriko ez denik esan, baina ezker abertzaleko zinegotziek argi dute. "Espero genuena iristear dago, ez da atez ateko zabor biltzarik egingo. Gure ustez nahiko argi dago PSE-PSOEek ez duela inongo borondaterik atez atekoa aurrera eramateko, beraien indarrak bosgarren ontzian (zabor organikoa) jarrita daude errausgailuarekin batera, hori bai herritik kanpo" salatu dute prentsaurrekoan.

Zinegotzi hauek prest agertu dira proiektuari bultzada emateko. Ricardo Ortega EBko zinegotzi eta ingurumen batzorde buruari esaten diote "zezenari adarretatik" heltzeko eta "lanean serio" hasteko:

"Apustu honetan zuk nahi baduzu edo uzten badizute (nahi eta ezinaren azpian ez izkutatu) bide lagun izango gaituzu atez ateko biltzetan sinisten dugun guztiok".

Dena den, Baztarrika, Goikoetxea eta lartzaren iritziz, EBko zinegotzia "momentu honetan indar eta ahalmen honetan duen boto bat besterik ez da gobernu batzordean. Mar txoan esan genuen eta berriro esango dugu: hasiera hasieratik zuloz beteriko saski bat oparitu diote, non hitz politikak sartu ahala, zuloetatik galtzen diren". Mar txoan jada salatu zuten ez

zela atez atekoa aurrera eramateko plangintzarik.

Plangintza sinesgarria

Euren ustez, beste salaketa batzuk egin dituztenean gertatu den bezala "erantzuna gezurretan ari garela izango da, baina oso erraza daukazu gure argumentuak hankaz gora jarri nahi badituzue; aurkeztu lehenbailehen plangintza sinesgarri bat, urtea bukatzeaz dago eta".

Hiru zinegotzi abertzaleek 2008an gehiengo osoz hartutako erabakia betetzeko eskatzen dute eta "batzordeetan ematen

ez dituzten argibideak" publikoki emateko ere bai. "Nola gure ustetan ez bata ez bestea ez dituzuen egingo, uste dugu iritsi dela garaia alderdi bakoitzak bere alternatibak mahai gainean jarri ditzan espektatiba faltsuak zokoratu eta herria lozorrotik atereaz".

2008ko martxoaren 5ean onartu zen gehiengo osoz Lasarte Oria Bizirik herri plataformaren mozioa: atez ateko sistema ezartzea, herritarren artean hondakinen inguruko inkesta zabala egitea eta auzo batzuetan esperientzia pilotu bat aurrera eramatea, gerora

udalerrri osora zabaltzeko ideiarekin. Azterketa Artelatz enpresak egin du eta "oso interresgarria" da Baztarrika, lartza eta Goikoetxearen ustez.

Zertarako gastuak

Orain, proiektua kolokan dagoela ikusita ezker abertzaleko zinegotziek galdetzen dute zertarako egin diren Agenda 21 lantaldearen hainbat bilera, zertarako gastatu diren 50.000 euro azterketa egiten eta 300.000 euro zabor ontziak lur azpian sartzan.

Prentsaurrekoan jakinarazi zutenaz, uztailen jada Ortega eta Urchueguia alkateak iritzi ezberdinak zituzten, Ricardok hiru auzotan atez atekoa mar txan jartzeko asmoa aipatu zuen bitartean, Urchueguiak, aldiz, partzuergoaren datuen arabera zabor organikoa biltzeko ontzia oso emaitza onak ematen ari dela eta aztertu beharreko datuak omen direla.

Irailean argitaratu da prentsan Hernani eta Oiartzun hurrengo urtean hasiko direla atez ateko biltzetarekin, eta Lezo, Urnieta eta Lasarte-Oria aztertzen ari direla. Ingurugiro batzordean honetaz galdetuta, Gobernu Batzordearen baitan desadostasunak daudela izan zen Ortégaren erantzuna. Dudarik gabe egitasmoa, inpaspe batean dago: bilerak ere etenda daude. •



Igandean egingo zaie zaharrei omenaldia: meza, jaialdia eta bazkaria /3



Oria Beheko odol emaileak Urnietan bilduko dira urriaren 18an /4

KIROLA /5

Sasoeta Saustatxo futbol taldeko entrenatzaile izandako Martija anaiei omenaldia

Amaraun LUDOTEKA

JOLASA BAINO GEHIAQO

Matrikulazioa zabalik!

Ttakun 943 371448
aisia@ttakun.com
www.ttakun.com

Zitek zientzi eskola

- ✓ Talde bereziak, txikiak eta homogeneoak: matematika, kimika eta fisika landu
- ✓ Laguntza taldeak: zalantzak argitzeko
- ✓ Orduzabala
- ✓ Informatikako klaseak 30 eurotik hilean
- ✓ IT txartela lortzeko
- ✓ Umeentzako Ikasi eta Jolas
- ✓ Mekanografia eta Word
- ✓ Helduentzako taldeak: goizez, arratsaldez eta txandaka
- ✓ Ingeleseko klaseak

Goikale 12 behea • Tel.: 943 363106 • 20160 Lasarte-Oria

Neure kabuz



Gizonegiak al gara?

Esan nahi dut, gizonegiak al gara kultur ekintzetan parte hartzeko? Aurreko egunean gertatutakoaren harira dator galdera. Urtean zehar herrian euskaraz antolatzen diren kultur eta aisialdirako hainbat jardueren berri emateko prentsaurreko bat egin zuen Ttakun Elkarteak. Argazkia ateratzerakoan batek bota zuen harria: hamaika lagun bildu baginen, horietatik gizonezkoak bi bakarrik. Bi eta erdi, askoz jota; bertso eskolako pantaide bat bazegoen, erdibituta baina, kazetari lanetan ari baitzen aldi berean.

Ez da gauza berria. Salbuespenak beti daude, eta arlo batzuetan besteetan baino gehiago, baina oro har, kultur ekintza batean muturra sartu eta askoz emakume gehiago topatuko dituzu gizonak baino. Antzerki eta dantzaren kasuan nabarmena da. Gurean ditugu adibideak: antzerki taldeetako batean suhiltzaile bat eta bederatzi emakume ari dira; bestean antzeko parezido, baina suhiltzailerik gabe; su arriku gehiago, beraz. Dantza garaikidean, nola esan... gizonegiak? Arrazoiak? Pentsatzeko jarri dut nik galdera, ez erantzun emateko.

Bukatzeko. Egon zen une polit bat prentsaurreko horretan, txaloren bat sortu zuena. Nik, dio! ez dakit gizonegia edo motelegia, ez nuen asmatu txalo ziztrin bat ere egiten. Inbidia emateko euskara sueltoan kontatu zigan Veronicak nola bi urtetan euskaldundu den. Bi urtetan. Nik bi hamarkada behar izan ditut. Berandu, baina, muxu bat Veronica.

Pablo Barrio

Zorion-agurrak



Eneko

Zorionak zure zazpigarren urtebetetzean. Ondo pasa familiaren partetik.



Pedro Juan eta Benita Maria

ZORIONAK zuren urrezko ezteietan.



Ane

Zorionak Ane! Sei muxu pottolo gure nekaxarentzat etxeko guztien partez.



Eneko

Zorionak Eneko zure Igo urtebetetzean! Ane, Aita eta amaxoren partetik.



Ilan

Zorionak pottoko! Bi muxu handi gurasoen partetik.



Nerea

10 urte hauetan eman dizkiguzun pozeengatik, Zorionak gure bihotzeko azukre kokkorra.

Jaiotzak

Breixo Otero Carré irailaren 23an
Milena Rivas Pérez, irailaren 19an

Heriotzak

Joaquin Moreno Alvarado, irailaren 27an
71 urte zituela

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA 943 464622
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak 943 362442
Ertzaintza 943 288888
SOS Deiak 112

Udala

Erregistroa 943 376055
Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kiroldegia 943376182
Kulturetxea 943376181
Bakezko epaitegia . 943371629
Zerbitzu Sozialak . 943376179
Zentro Zibikoa ... 943363958
KIUB 943361605
Udal euskaltegia ... 943361621
Obrak eta zerbitzuak 943 376180

Guardiak

Ostirala, 2

Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567

Larunbata, 3

Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567

Igandea, 4

Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567

Astelehena, 5

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Asteartea, 6

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Asteazkena, 7

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Osteguna, 8

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Ezcaray-en duplex bat saldu edo alokatzen da. Erreka ondoan dago, igerilekua daukan urbanizazioan. 3 logela ditu eta etxea jantzita dago.la berria. Telefonoa: 652774679

• Apartamentua salgai Lasarte-Orian. Egoera onean dago. Toki lasaian eta berritu berria. Bikotearentzat egokia. Telefonoa: 657 708 866.

Salerosketak

• Salgai pisu bat, 2 logetakoa eta Atsokabar auzoan (fatxada txurikoa). Tel.: 627 310 660.

Lan-eskaintzak

• 9 urteko neska bati etxean bertan ingeleseko klaseak emateko irakaslea behar da Lasarte-Orian. Harremanetarako zenbakia, 635 707 689

• Hilabetean bi astez, 8:00etatik 9:00etara, eta aste betez, 16:30etik 18:00etara, haurrak ikastolara eraman edo jasotzeko pertsona baten bila gabilta. Harremanetarako zenbakia, 62661411.

Lan-eskariak

• Etxe batean interna edo orduka lana egingo nuke. Harremanetarako zenbakia, 676 188 411.

• Etxe batean interna lanetarako emakumea bat eskaintzen da. Harremanetarako zenbakia, 943 368 574.

• 56 urteko emakume bat eskaintzen da goizeko 08:00etatik 15:00etara pertsona edade-tuak zaindu edo etxeko lanak egiteko Lasarte-Oria eta Hernani inguruan. Tel.: 687 348 223.

• Klase partikularrik ematen ditut, matematika eta estatistika, edozein mailan, esperientzia handia. Telefonoa: 646 717 676.

• Mutil arduratsu bat lan bila dabil. Pertsona helduan zaintzen, baserrietan edo beste lanetan. Erreferentziak ditu. Telefonoa: 659 26 07 07.

Oharrak jartzeko:

www.txintxarri.iragarkilaburak.com
txintxarri@txintxarri.info
Tel.: 943 366858 • Geltoki 4



www.gipuzkoangazte.info

Gazte Informazioarako Bulegoa

Manuel Lekuona kulturetxea
Tel.: 943 376181

Tolosaldeko Informazio eta Komunikazioa Teknologien Astea

Lehiberri, Tolosaldeko Lehiakortasun eta Berrikuntza Foroak, Tolosaldea Garatzen eta Enpresa Digitalarekin batera, Informazio eta Komunikazio Teknologiei buruzko astea antolatuta du. IKTe-kin eta hauen erabilera eta erabilpenarekin zerikusia duten jarduerak antolatzeaz gain, hitzaldi bat ere emango da Mugikortasuna: lan egin ezazu non-nahi bulegoan izango bazina bezala izenburupean.

Bertan, on-lineko erremintek lanerako eskaintzen dituzten

aukerak ezagutaraziko dira. Jardunaldirako plazak mugatuak dira, beraz, soilik baieztapena jasotzen dutenek izango dute etortzeko aukera.

Gainera, egunero industrialgune bakoitzeko jardunaldietako parte-hartzaileen artean minipor-tatil bat zozketatuko da.

Taiera urriaren 27an izango da, goizeko 09:30etik 11:30era, bi orduz. Apatxa-Erreka industrialdean, Ibarra, egingo da. Informazio gehiago nahi izanez gero jo www.tolosaldeagaratzen.net web atarira; enpresa@tolosaldea.net helbidera edo 943 65 45 01 telefono zenbakira.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



**Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea**



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Meza, bazkaria eta jaialdia adinekoen omenaldi egunean

■ Urrezko ezteiak ospatu dituzten bikoteek oroigarria jasoko dute gaur

TXINTXARRI

Igande honetan izango da urtero herriko adinduen omenaldi egiteko den eguna. Baina omenaldi hau ez da soilik egun bakarrera mugatzen, eta gaurtik hasita aurkitzen ditugu ekitaldi ezberdinak.

Gaur arratsaldeko 18:00etan izango dugu lehenengo ekitaldia. Aurten urrezko ezteiak bete dituzten bikoteei oroigarriak banatuko dizkiete.

Programazioaren hurrengo ekitaldia, larunbatean izango dugu, goizeko 12:00etan. Extremadura Etxeak ikasle gaztetxoaren artean antolatzen duen poesia eta marrazki lehiaketaren sari banaketa egingo du Erretiratuen Elkarteak.

Omenaldi eguna

Omenaldiko egun garrantzitsua da igandekoa da. Goizeko 11:00etan San Pedro Parrokian ospatuko den mezarekin emango zaio egunari hasiera. Alboka Abesbatzak, bertsolariak, trikixak eta dantzariak parte hartuko dute honetan.



Urtero legez, Lasarte-Oriako Udalak meza, jaialdia eta bazkaria antolatu ditu igandean Adinduen omenaldi eguna ospatzeko.

Meza amaitu eta denak Manuel Lekuona Kultur Etxean ospatuko den jaialdian topatuko dira. Bertan Zero Sette akordeoi orkestra, eta Lasarte-Oriako Erretiratuen Elkarteak Biyak-Bat abesba-

tzek kontzertua eskainiko dute guztien gozamenarako.

Hau amaiturik, eguerdiko 14:00etan ohiko bazkariari emango zaio hasiera.

Urtero bezala Udak Kirol Gunean, Mitxelineko fron-

toian ospatuko da bazkaria. Eta bertan, lasarteoritar helduenak omenduko ditu Udalak. Alde batetik, Manuela Calvo Rey, 1916.urtean jaioa eta bestetik, Dimas Vegas Calvo 1919an jaioa. •

FROILAN ELESPE PARKEA

Udalak uroiloiei janaririk ez emateko eskatu du

Lasarte-Oriako Udalak lerro hauen bidez herritarrei eskatu nahi die Froilan Elespe parke botanikoko hezegunean dauden uroiloiei jana ez emateko.

Udalak azpimarratzen duen bezala, uroilo mota hau hezegunean dauden izaki bizidunei esker bizi da eta ez da beharrezkoa jendea jakien poltsekin joatea.

Era berean, Udalak gogorarazi nahi du hegaztiei janaria ematea debekatuta dagoela eta lehen ez zeuden arratoien agerpena sortzen ari dela ere jakin arazten du. •

LITERATUR TAILERRA

Ikasturte hasiera

Gaur emango zaio hasiera Lasarte-Oriako Udaleko Kultura sailak antolatzen duen literatur tailerrari.

Honetan liburuak irakurtzeaz gain, hauetan dauden gaiak uztartzen dituzte.

Herritar guztientzako irekia izango da, ostiralero 16:00etatik 19:00etara, eskola egutegiaren arabera.

Doako tailerra da eta izena eman nahi duenak gaur bertan joan beharko du lehenengo saiora. •

Edukiontzia arte-euskarri bihurturik

■ Arte eta birziklapena elkartzea du helburu Reziklarte emanaldi artistikoak

■ San Markos Mankomunitateak baztertutako edukiontzia margotzeko lehiaketa antolatu du

Hondakinen kudeaketa-sisteman atez atezko gaikako bilketa martxan jarri denetik, edukiontzien lekua hartu du esekitokien sistemak.

Edukiontzia zahar asko gordeta zeudenez, *Bilbo Cow Parade'07* edo *Berlin Bear Parade'08* ekitaldien antzeko emanaldi artistiko bat antolatu du San Markos Mankomunitateak, *Reziklarte*.

Honela, edukiontzia arte-euskarri bihurtu nahi dituzte lehiaketa honen bitartez, eta halaber, gaikako bilketaren eta birziklatzearen inguruko kontzientziazio kanpaina bultzatu.

Lehiaketa sistema

Lehiaketarako deialdia irekia izango da, eta parte hartu nahi dutenek zirraborro bat aurkeztu behar dute, urriaren 5a baino lehen.

18 urte beteta izatea baino ez da eskatzen eta banaka zein taldeka aurkeztu daitezke parte-hartzaileak.

Inskripzioa egiten dutenen artista guztien artean aukeraketa bat egingo da, azkenean 26 parte-hartzaile geratuko direlarik. Aukeraketa honetan, arte-irizpidez gain balioetsiko da hondakinekin, gaikako bilketarekin, birziklatzearekin... lotutako edukien erabilera.

Zirraborroa arte lan bihurtu

Arte lanak egiteko, sei egun izango dituzte lehiakideek, urriaren 13tik 18ra Anoeta estadioko behealdean prestatutako areto batzuetan.

Antolatzaileek 500 eurotako txeki bana emango diete proiektua egiten laguntzeko.

Erabiliko diren 26 edukiontzien ezaugarri berberak izan-

go dituzte; beira-zuntzez egindakoak, eta kolore horikoak.

Edukiontzia garbiak eta bi sarrera itxirik dituztelarik landu beharko dituzte eta erabili beharrek teknika uretan disolbatutako pintura akrilikoa da, baina eguraldi txarri eusteko adinako erresistentzia duena.

Sariak

Orotara bost sari egongo dira. Lehenengoa, 4.000 eurotako, bigarrena 2.000 eurotako eta hirugarrena 1.000 eurotako birziklatze-kontuetan adituek eta San Markos Mankomunitate barruko zein kanpoko artista ezagunek erabakiko dituzte.

Laugarrena eta bosgarrena, aldiz, erakusketa ibiltarira joaten diren ikusleek erabakiko dituzte, 500 eurotako saria izanik bakoitzarentzat.

Erakusketa

Era berean, San Markos Mankomunitatea osatzen duten 10 udalerrietan zehar egingo den erakusketa ibiltariari esker obra guzti hauek ikusteko aukera egongo da. Urriaren

21ean Donostian inauguratu, eta abenduaren 2an Errenterian amaituko da erakusketa.

Lehiaketari buruzko informazio gehiago eskuratzeko sartu www.gipuzkoa.net/san-marcos orrialdean. •



Oria Beheko odol emaileak Urnietan elkartuko dira urriaren 18an

Urtero legez, Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteko zati den Oria Beheko Ordezkaritzak, Urnietan egingo du bere bilkura.

Urriaren 18an antolatutako batzarrean ekitaldi ugari antolatuko dira.

Ekitaldiak

11:00etan Urnietako Mikel Deunaren parrokiara egingo den mezarekin hasiko da bilkura. Honetan nahi duten kideek parte hartu dezakete.

Eguerdian, berriz, ordezkaritzako herri guztietako kideei ongi etorria egingo zaie San Juan Enparantzan.

Ostean, guztiak Lekaio Kultur etxera abiatuko dira. Bertan 25, 40 eta 50 aldiz

odola eman duten odol emaileei intsignia eta diplomak banatuko zaizkie. "Aurten Lasarte-Oriako 22 kideek hartuko dute bere saria," aipatu digu Joxe Usabiaga Lasarte-Oriako ordezkaririk.

Eta batzarra era paregabean bukatzeko, guztiek bazkariatz gozatzeko aukera izango dute Urnietako pilotalekuan.

Izena ematea

Bilkuran eta bazkarian parte hartu nahi duten herritarrek urriaren 9a arte dute izena emateko.

Horretarako Joxe Usabiagarekin jarri behar zarete harremanetan 943 371 345 telefono zenbakian. •



Urriaren 18an bilduko dira Odol Emaileen Oria Beheko ordezkaritzako kideak Urnietan.



Portugalgo Calçada Romana abesbatzak Ama Brigitarren komentuan eskainiko dute kontzertua bihar, 20:00etan.

Portugalgo doinuak bihar Brigitarren komentuan

Portugalgo Calçada Romana Abesbatza entzuteko aukera izango da bihar arratsaldeko 20:00etan Ama Brigitarren komentuan.

Alboka Abesbatzak gonbidatuta dator Portugalgo abesbatzak eta Ipar eta Hego Euskal Herriko biran eskainiko dituen kontzertuetako bat da biharkoa.

Ama Brigitarren komentuan abesbatzaren erreperitorio zabaleko zati txiki bat entzun ahalgo da.

Batetik klasiko handien abestiak eskainiko ditu Bachen *O esca Viatorum* edo Pergolesiren *Surrexit, Christus* esate baterako eta, bestetik, Portugalgo doinuez gozatzeko aukera egongo da, hala nola, *Maria da Conceição*, *Verdes*

são os Campos edo *Olhos negros*.

Calçada Romana

1993 sortu zen Alqueidão da Serra herrian Calçada Romana Abesbatza.

Portugalgo erdialdean kontzertu ugari eskaini ditu, baita atzerrian ere, hala nola, Frantzia eta Espainian.

1999an Leiriako INATELeko Kultura Merezimenduen domina eman zioten.

Urtero, Calçada Romana-Kultura bidea-Abesbatzak-Itsaso eta Lurraren arteko doinuak zikloa antolatzen du eta 2008tik aurrera, Itsaso eta Lurraren arteko doinu herrikoien harmonizazioa sustatzeko, José Riberiro da Sousa harmonizazio lehiaketa. •



ANAIK

JANTZI-DENDA

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362386

Martija anaiei omenaldia

■ Sasoeta-Saustatxo futbol taldeko entrenatzaile izandako anaien omenez futbol partida eta bazkaria antolatu dira

TXINTXARRI

Urriaren 17an, omenaldia egin nahi zaie hainbat urtetan Sasoeta-Saustatxo futbol taldeko entrenatzaile lanetan ibili ziren Jose eta Iñaki Martija anaiei.

"Urte askotan talde ezberdinak entrenatu zituzten eta Jose eta Iñakiri eskerrak emateko modu bat da. Guztiok hazi gara haiei esker eta gure eskertza erakusteko ordua da," azaltzen dute omenaldiaren antolatzaileek.

Honela, urriaren 17an, futbito partida jokatu da eta ostean bazkaria antolatu da entrenatzaileen ohoretan. "Ordua eta lekua zehazteko dago oraindik, baina eguna hurbildu ahala jakin araziko dugu," esan digu antolatzaileetako batek.

Bloga

Antolatzaileek 1978 eta 1992 urteetan zehar talde ezberdinetan parte hartu duten jokala-

riak bildu nahi dituzte. "Gutxi gora behera 200 bat izan gara haien zuzendaritzapean jokatu dugunak," esan digu.

Horretarako blog bat argitaratu zuten uztailean, www.loschicosdemartija.blog.spot.com.

Bertan omenaldiaren zer-gatia azaltzeaz gain, oroitzapenentzako tartea ere badago. Izan ere, talde eta lehiaketa ezberdinetako argazkiak ikusi baitaitezke bertan, San Pedro jailetako torneo, Donostiako Kontxa hondartzako lehiaketa, etab.

Eta, honetaz gain, omenaldian nola parte hartu ere azaltzen dute bertan. "Omenaldian parte hartu nahi duenak blogera sartu eta bertan aurkituko du azaldua non eta nola eman dezakeen izena partida eta bazkarirako," aipatu digute antolatzaileek.

Beraz, Martijatarren mutiak izan zaretenok animatu eta sartu blogean, urriaren 10era arte duzue izena emateko. •



Martija anaia, Jose eta Iñaki, entrenatu zituzten bi talderekin Kontxa hondartzako lehiaketan.

Arg.: Ricardo



Miranda de Ebron Donejakue bideko lagunen IX. bilkuran parte hartu berri dute.

Musika Eskola Kilometroak 09an

Igande honetan Donostian ospatuko den *Kilometroak 09an* parte hartuko dute Lasarte-Oriako Musika Eskolako trikitilariak. Zurriola ikastolan jarriko den lehenengo gunean izango da eta goizeko hamaiketan aritu dira giroa alaitzen gazte hauek.

Lasarteoriatar trikitilarekiekin batera, Irungo Txorimaloak Soinu Taldea arituko da. Kanta ezagun eta ez hain ezagunak

eskainiko dituzte. Halaber, taldeko kideek eurek sortutakoak ere.

Miranda de Ebro

Baina ez da hau Musika Eskolako trikitilariak egin aurten egingo duten lehenengo irteera izango, lehenengo asteburuan Miranda De Ebron egon baitziren jotzen *Donejakue bideko lagunen IX. bilkuran*. •

Indarkeriaren inguruko gogoeta gaur Jalgin

Bi emakume kotxe batean eserita. Helmugarik ez duen bidai bat. Karmeleren zain. Zein da Karmele? Gure Karmele? Ez da ezer gertatzen, ez dator inor, ez doa inor... hauek dira *Eta Karmele?* lanaren nondik norakoak.

Absurduaren antzerkitik gertu dagoen lan honek, umorea tresnatuz hartuta, emakumeen kontrako indarkeriari buruzko gogoeta fina egiten du.

Eta hori da, gaur gaueko 23:00etan Jalgi Kafe Antzokia Ainhoa Alberdi Gisasoa eta Iraia Elias Muniain aktoreek antzeztuko duten lana.

Hasiera batean ekainean antzeztu behar zen *Eta Karmele?* antzezlana hau, baina bertan behera geratu zen. Hiru hilabete ondoren, ikusteko aukera izango da, beti bezala doan. •



Ainhoa Alberdi Gisasoa eta Iraia Elias Muniain *Eta Karmele?* lanaren une batean.

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 3

10:00etan, Ostadar-Real Union (Emakumezkoen KDT F-11) Michelinen.
11:30etan, Ostadar-Vasconia (I. Kadetea) Michelinen.
13:00etan, Ostadar-Hernani (Infantil txikiak) Michelinen.
15:30etan, Ostadar-Sporting de Herrera (I. Jubenila) Michelinen.
17:15etan, Ostadar-Roteta (Erregional Goren) Michelinen.

13:45ean, Vasconia-Ostadar (Emakumezkoen Liga) Martutene, Donostian.
15:30ean, Intxurre-Texas Lasartearra (I. Erregionala) Elorri, Alegin.
16:00etan, Union Txiki Touring-Ostadar (Jubenilen Ohorezko Maila) Fanderia, Errenterian.



ARETO-FUTBOLA

Larunbata 3

17:45ean, ISU leihoak-Tolargi (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Kiroldegian.

Igandea 4

10:30ean, Aldaz H.K.-Allerru Algeposa (Nazional B maila) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

Michelingo areto-futboleko gunean

Ostirala 2

20:30ean, Obelix-Lekuona Mena

Larunbata 3

10:00etan, Goiz Argi-Naiban
11:00etan, Buenetxea-Ainhua
12:00etan, ISU L.-Mingallon

13:00etan, Epel-IOB H.K.
15:00etan, Ilargi-Izkiñ
16:00etan, Oriá kris.-Biyona
17:00etan, Jalai-Okela
18:00etan, Tragoxka-Viña del Mar

Igandea 4

10:00etan, Izarra-Danena
11:00etan, Morrison-Siglo XX

FUTBOL 7

Igandea 4

12:30ean, Niasa-Corpa-Kopier-der-Develop (III. Maila) Urnietan.

PILOTA

Ostirala 2

19:00etan, Bergara-Intza (Eskuz binaka II. Kadeta) Antzuola, Bergaran.

Larunbata 3

11:30ean, Intza-Zazpi Itturri (Eskuz binaka I. Seniorra) Michelinen.



JUDO

Larunbata 3

10:00etan, Beñat Elizalde LOKEko judokak Irungo San Martzialeko XLI. txapelketan.



Areto futboleko denboraldia hasi zen lehengo astean

Aldaz H.K. eta ISU Leihoak taldeek lehengo astean hasi zuten denboraldia. Aldaz H.K. Lasarte-Oriako lehen taldea dugu Nazional B mailan eta maila horretan mantentzen saiatuko da; ISU Leihoak, berriz, Gipuzkoako Liga atzean utzi eta Euskal Liga du helburu. Era ezberdinean hasi

dute denboraldia, gainera, Oscar Garciaeren muti-lak 5-1 galdu zuten bitartean, Eneko Molinaren mutilek 1-3 irabazi zuten. Taldeetako entrenatzaileekin hitz egin dugu aurtengo denboraldia nola ikusten duten jakin eta lehengo partidetakozentsazioen berri izateko.

Oscar Garcia/ Aldaz H.K. taldeko entrenatzailea

Nola ikusten duzu taldea denboraldiari begira?

Talde gogoekin dago eta ilusio handia dugu. Erronka handia da guretzat.

Jendea entrenatzera dator eta taldea berri du. 6 jokalar berri daude eta hauek esperientzia handikoak dira. Hori taldeari ongi etorriko zaio eta bakarka, gainera, kalitatea eta teknika handia dute.

Lehengo postuetan egoteko asmoa al duzue?

Zaila da maila honetan. Helburua mantentzea da. laz ere Euskal Ligan hori zen helburua, baina igo ginen. Aurten zailagoa da. Maila oso ezberdina da.

Helburu batekin hasi behar duzu denboraldia eta gero partidak jokatu ahal bakoitza bere lekura doa.

Hala ere, zaila da gure lehengo urtea da eta maila honetan dauden taldeak urteak daramatate, esperientzia handia dute.



Aldaz H.K. taldeak Nazional B mailan mantentzen saiatuko da aurtent.

Denboraldiko lehengo partidaren ez duzue zorte onik izan, ezta?

5 eta 1 galdu ginen Lakunza Garraioak taldearen aurka.

Aurreko asteburuan txapelketa izan ginen eta horrek kaltetu egin gintuen. Jokalari asko genituen lesionatuak.

Hala ere, ez ziren bajak bakarrik izan. Urduitasuna

nabari zen taldean eta ez genuen ondo jokatu.

Eta asteburu honetako partidara, nola ikusten duzue?

Partida zaila da igandekoa. Aurrean igo daitekeen taldea dugu Allerru.

Baina ilusioz goaz, jokalar berri batzuk osatuko dira eta saiatuko gara. •

Eneko Molina/ ISU Leihoak taldeko entrenatzailea

Nola ikusten duzu taldea denboraldiari begira?

Esperantza handiak ditugu. Taldea mantendu da, lau jokalar berri ditugu eta ongi ibiltzea espero dugu.

Honetaz gain, talde gaztea dugu eta ikasi nahi duena.

Gainera, 4 jokalar berri izateak asko lagunduko digu, bi txapelketak, federatua eta

herriko txapelketa, aurrera eramaten.

laz, denboraldi bukaeran oso justu ibili ginen eta ez dugu aurten hori gertatzea nahi.

Lehengo postuetan egoteko asmoa al duzue?

Printzipioz gu sailkapeneko goiko aldean egon nahi dugu.

Lehengo fasean sailkapeneko 1go edo bigarren bukatzen badugu, igotzeko ahalegin guztiak egingo ditugu.

Gero, babesleak eta bilatu beharko dira, baina gero geroakoak.

Denboraldiko lehengo partidaren garaipena lortu duzue. Nola ikusi zenuen partida?

Lehengo partida izateko ondo ibili ginen. Orokorrean partida ona izan zen eta gainera garaipena kanpoan izan zen. Hala ere, jokaterakoan erritmoa falta da oraindik.

Eta asteburu honetako partidara, nola ikusten duzue?

lazko taldearekin jarraitzen badu Tolargi, partida borrokatua izango da. Talde polita da eta ondo jokatzen duena, ez da erraza izango.

Aate buru honetan auekarak ditugu irabazteko ondo jokatuz gero, baina denboraldi hasiera da. •



ISU Leihoak, berriro ere, Euskal Ligara igotzeko ahaleginak egingo ditu.


Kiroletako oharrak

Kirol guneetako ordutegia
 Kiroldegia, astelehenetik ostiralera, 7:00etatik 22:30era egongo da irekia, larunbatetan 9:00etatik 20:00etara eta igandeeetan, 9:00etatik 13:00etara; igerilekua, berriz, astean zehar 7:00etatik 12:30etara eta 14:00etatik 21:30etara, larunbatetan 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, igandeeetan 9:00etatik 13:00etara.
 Michelingo kirol gunea, astelehenetik ostiralera, 15:00etatik 22:00etara irekiko da, larunbatetan 9:00etatik 20:00etara eta igandeeetan 9:00etatik 13:00etara.

Egunero

Erakusketa

ISLA BISUALAK izeneko erakusketa. Oscar Pozosen argazkiak. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.



Ostirala 2

Antzerkia

ETA KARMELE? ikuskizuna Iraia Elias eta Ainhoa Alberdiren eskutik. Jalgi kafe-antzokian, 23:00etan, **EUSKARAZ**

Larunbata, 3

Kontzertua

PORTUGALGO CALÇADA ROMANA abesbatzak abesti klasiko eta herrikoiak eskainiko ditu. Doan. Brigitarren komentuan, 20:00etan.

Larunbata, 3

Reggae sesioa

SERGIO SOMA eta harekin datoren abeslariak Reggae estiloko saioa eskainiko dute. Doan. Sasoeta auzoko Naitan tabernan, 23:00etan.



Udazken festa aurten ere Zabaleta auzoan

Urtero bezala, udara agurtu orduko, Udazken festa antolatzen dute Zabaleta auzoan. Gaur egingo dute eta festari hasiera haurren jolasekin emango diote 19:00etan. Ondoren film baten proiektzioa izango dute eta amaitzeko sardina jana egingo dute 20:30ean.

OSTIRALEAN, 2AN
19:00ETATIK AURRERA
ZABALETA AUZOAN

Igandea, 4

Kontzertua

ZERO SETTE Akordeoi Orkestrak eta Erretiratuak Elkarteak BIYAK-BAT ABESBATZAK kontzertua eskainiko dute Zaharren Eguneko Jaialdian. Kulturetxean, 12:30ean.



Zinea

UP ANIMAZIOKO FILMA eskainiko da haurrentzako zinema atalaren barruan. Sarrera: 3,15 euro. Manuel Lekuona Kulturetxean 17:00etan.

GAZTELANIAZ



Asteartea, 6

Ipuin-kontalaria

PELLO ANORGA ipuin-kontalariaren IPUINAREN ORDUA saioa 4, 5, et 6 urteko haurrentzat. Haurrak bakarrik egingo dira eta behin ipuina hasi eta gero ezingo da gelatik irten. Denak puntu-puntuak hasiko dira. Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan, **EUSKARAZ**

Osteguna, 8

Zinea

BUSCANDO UN BESO A MEDIANO-CHE filma ikusgai Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera 4,15 euro. Manuel Lekuona Kulturetxean, 21:30ean. **GAZTELANIAZ**

Osteguna, 15

Hitzaldia

GURASOAK SEPARATZEN DIRENEAN hitzaldia eskainiko du Helena San Pedrok, Nola hezi gure sema-alabak hitzaldi zikloaren barruan. Manuel Lekuona Kulturetxean, 18:00etan.

Eskutitzak

Bertso Eskolaren eskertza

Lasarte-Oriako Bertso Eskolak biziki eskertu nahi die emandako laguntza Patxi Etxeberria bertsolariari aurreko igandean hilaren 27an egin zitzaion omenaldian lagundu eta parte hartu zuten guztiei. Ttakun Kultur Elkarteke Bertso Eskola honek esker onez adierazten du Lasarte-Oriako bertsolariaren omenaldi ekitaldia antolatzeko, Intza elkartearen eskaini zen bazkaria prestatzeko eta Patxi Etxeberriaren ibilbide eta bizitza jasotzen duen liburua argitaratu ahal izateko jo dituzten ate guztiak parez pare zabaltzeko. Erantzuna izugarria izan da eta beraz, Bertso Eskolak egitasmoari laguntza eta bultzada eman dioten guzti-guztietan esker ona besterik ezin adierazi.

Mila esker omenaldian izan ziren guztiei ere, beraiei esker are ederrago izan baitzen ekitaldia. Esan bezala, eskerrak den denei eta hurrengo batera arte.

Izango dugu berriro nonbaiten topatzeko aukerarik.

Ttakun Kultur Elkarteke Bertso Eskola

Oharrak

Helduen antzerki taldea

Landaberri Antzerki Eskolak jakinarazi nahi du helduen talde berri bat sortu dela. Talde hau ostegunetan bilduko da iluntzeko 19:30etik 21:00etara.

Oraindik plazak badaudenez, interesa dezutenok deitu 943 371448 telefonora informazioa jasotzeko edo apuntatzeko. Euskaraz izango dira eskolak, beraz, oso egokia da euskara ikasten ari zarenontzako, eta erdointzen utzi nahi ez dezuenez.

Eskularen ikastaroko lehen saioa

Ttakunek antolatutako eskularen ikastaroko lehenengo saioa urriaren 3an izango da, Erribera kaleko 1. zk. (liburutegi zaharrean), goizeko 10:30ean. Interesatuak bertara azaldu edo Ttakunen izena eman (Geltoki kalea 4, 943 371448). Eskularen gogoko badituzu, animatu eta etorri, ez zaizu damutuko!

Xumela korua martxan

Xumela koruaren lehen entsaioa urriaren 5ean izango da, beti bezala Landaberri BHI egoitzan eta arratsaldeko 19:30ean. Interesa duzenok, bertara azaltzea besterik ez duzue. Animatu eta etorri kantatzera!

Alboka Txiki entseguak

Alboka Txiki abesbatzak entseguak hasi ditu. 7 eta 12 urte arteko haur eta gaztetxoek irekia dago abesbatza eta ez da beharrezkoa musika jakitea. Entsegua Zumaburu eliza azpiko lokalean egiten da, ostegunetan 19:00etatik 20:00etara. Anima zaitzete!

Oriatarren bazkaria

Urtero legez Oria auzoko bizilagun eta lagunkideek bazkaria ospatuko dute urriaren 18an. Txixardin Beltza jatetxean izango da eta aurten Bruneteko eta Oria auzoko praktikante izandako Jose Javier San Sebastian omendu-

ko dute. Bazkarirako txartelak eskuratzeko telefono zenbaki hauetara deitu behar da 943 363 332 (Marimi) edo 943 363 905 (Marisol) urriaren 10a baino lehen.

Oztabide elkarteke loteria

Oztabide auzo-elkarteak Arranbide-Oztaraneko auzotarrei jakin arazten die eguberriko loteria salgai dagoela. 19827 zenbakia da eta 3 euroko (loteria: 2,5 euro eta emaria: 0,5 euro) loteriako partaidetzan eskatzeko aukera izango duzue. Loteriako partaidetzak Txema tabernan (Andapa kalea, "Zumaburu") eta COVIRAN supermerkatuan (Oztaran enparantzan) erosi ahal izango dituzue.

Bide batez, gogora arazi nahi dizuegu administratza gastuei aurre egiteko baliabide hau bakarrik daukela elakrteak. Edozein zalantza argitzeko, 627818225 (Joseba) edo 661068301 (Pili) telefonoetara deitu.

Oinatzten irteera bertan behera geratu da

Oinatz taldeko arduradunek jakinarazi digutenez, Donibane Garazira urriaren 4rako antolatuta zuen irteera ez da egingo.

Data berria ezartzerakoan, komunikabideen bidez emango dute honen berri. Barkatu eragozpenak.

Txokotako argazkiak

Udaran, uztaila eta abuztuan, Ttakunek antolatutako txokotan egondako haurren argazkiak jasotzen dituzten Cdak eskuragarri daudela dagoeneko Amarun ludotekan (Ola kalea 1). Orduetgia: 17:00etatik 20:00etara.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info
txintxarri@ttakun.com

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Miren Artetxe Bertsolari Txapelketa Nagusia partaide, larunbatean, 3an, Zestoako Gurutzeaga pilotalekuan, 17:30ean

‘Maialenek irabaztea gustatuko litzaidake’

■ Lasarte Orian jaiotako bertsolariaren ustez maila ikaragarria izango da ■ Poztuko litzateke finalisten artean sorpresarik izango balitz ■ Lasai xamar kantatu eta gauzak esatea du helburu

Bihar larunbata hasiko da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia Zestoako Uztapide plazan dagoen Gurutzeaga pilotalekuan, arratsaldeko 17:30ean. Eta bertan izango da Lasarte-Orian jaiotako Miren Artetxe bertsolaria. Hurrengo igandean hilak 11 Amaia Agirre, herriko bertso eskolako irakasle eta Ostadarreko atezain ohiak kantatuko du Bilbon eta hilaren 17an Unai Muñak Uztaritzen. Gaur Miren Artetxe ekarri dugu orriotara.

JON ALTUNA

Arabako Birgara Barren herri txikian bizi da Miren Artetxe egun, han eta hemen ibili eta gero. Lasarte-Orian jaio zen, baina 5 urterekin Hendaiaira joan zen bizitzera. Gerora ikasketan zirela medio Gasteizen eta Barzelonan bizi izan da. 24 urte ditu, Euskal Filologia eta hizkuntzalaritza ikasi ditu, Hendaia eta Oartzungo bertso eskolatan aritu da, orain Birgara Barrengoan dago eta Hamaika Bertuteko kide da. “Bertsolaritza txikitatik bizi izan dudana zerbait da, gustatzen zaidan jolas bat. Bat-batekotasuna gustatzen zait, komunikatzeko era berezi hori, hitzekin jolaste hori, eta baita bertsoaren aitzakian izaten diren mila kontu ere, baina ez dut nire burua bertsolari bezala ikusten. Bertsolaritza zaletasun bat da” kontatu digu Miren Artetxek.

Beraz, ez du gehiagi kantatzen: “Azken urteetan ez dut saio askotan kantatzen. Ezta hilabeteen behin ere, nik uste. Eta hala nahiago, benetan. Toki batera kantatzera joatekotan, gogoz joan nahi izaten dut eta ez konpromisoz. Bertsolari batzuk saio asko gogoz egiteko gaitasuna dute, baina nik bi astetik behin bertso saiotara joaten ibiltze hori, ez daramat oso ondo. Nahiago asteburuak badit nagoen tokian kantatu. Hori bai, saio bat hartzekotan, nahiago bertsolari ezagunekin, lagunarteko zerbait, jaialdi handi bat baino.

Bertsotan noiz eta nolatan hasi zinen?

Txikitari hasi nintzen, 9-10

urterekin, Hendaiaiko ikastolan izaten zen bertso-eskolan. Etxean beti izan da hitzarekin jolasteko zaletasuna, aitona aitari pasa, eta aitak niri. Nahiz eta ez den izan herentzia tipoko transmisioa.

Nik banekien etxean zaleak zirela, eta nik ere gustuko nuen kotxean aitarekin puntuka aritzea, errimatu gabe, zentzurik gabe, baina hantxe, denbora-pasa...

Bertso eskolan hasi nintzen, talde polita geneukan, lehenengo bertso-parrandak iritsi ziren... eta akabo, konturatzeko bertsotan nenbilen.

Euskal Herriko txapelketan kantatuko duzu, lehen aldiz al da?

Ez, aurreko Euskal Herrikoan kantatu nuen lehen aldiz.

Jada hilabete batzuk lortu zenuen txapelketan kantatzeko txartela, nola joan dira hilabete hauek? Nola ikusten duzu zure burua? Puntuari al zaude bertsolarako?

Ba egia esan ez dut prestakuntza berezirik egin hilabete hauetan.

Aurtengoan esan nuen prestatuta joateko asmoa neukala, merezi zuela hainbeste, ez dela plana eskolarteko txapelketetako garaiko lau errimekin joatea Txapelketa Nagusia... baina azkenean gauza bat dela eta beste dela, ez dut burua honetan eduki.

Hala ere espero dut desastre ez aritzea nire saioan, nire buruarekin lasai geratzeko, eta ez pentsatzeko hobe nuela beste bati nire tokia uztea.

Zein gogorekin aterako zara kanporaketa saiora?

Ba esan bezala, nire helburu bakarra da oholtzatik jaistean nire buruari ez esatea “Kaka. Hobe zuen Ekhi Erremundegik kantatu nire partez!”. Nahiz eta beharbada egia izan.

Ea lasai xamar kantatzen dudana larunbatean eta zerbait esaten dudana, bertso hutsik bota gabe. Hori lortuz gero nahikoa!

Urduri jartzen hasi al zara jada? Nola lortu daiteke aldarte onean igotzea oholza gainera?

Ba oraindik ez naiz urduri jarri. Ez naiz jarri. Baina pentsatzen dut etorriko dela hori ere. Zenbat eta beranduago hobeto!

Nola prestatu duzu txapelketa? Zerbait berezirik egin al duzu?

Ba egia esan, ez dut prestakuntza berezi-berezirik egin. Ostiralean etxeokoa daukat bertso-eskola intentsiboa (tentsiorik gabekoa), eta hori izango da egingo dudana gauza bereziarena. Ez nago harro, baina halaxe da, burua ez dut txapelketan zentratuta izan azken hilabeteetan, naiz eta urriaren 4ko data tartean behin burura etorri.

Beteko al da berriro BEC? Osasuntsu al da bertsolaritza?

Pentsatzen dut beteko dela BEC. Ez dakidana da horrek esan nahi ote duen bertsolaritza osasuntsu dagoela.

Seinale ona litzateke bertsolaritzarentzat, baina jarduera herriko baten kasuan, osasuntsu egotea momentu puntual batean konbokatariako kapazitate erraldoia edukitzea baino askoz gehiago da.

Zein zortzi bertsolari izango dira finalean? Sorpresarik izango al da?

Ez dut ideia handirik. Suposatzen dut Egaña, Lujanbio, Elortza, Iturriaga eta Arzallus bertan izango direla dudarik gabe, eta hor toki gutxi gelditzen da jende askorentzat. Poztuko nintzateke sorpresaren bat egingo balitz, baina hortik aurrera ezin dizut pronostiko zehatzago bat eman.

Nor izango da txapelkun? Eta zeinen alde egingo duzu zuk?

Komeni Egañak txapela galtzea. Edo hobeto esanda, beste batek irabaztea. Nik uste Egañak berak ere hala nahiko duela. Baina nork daki nor ibiliko den aurrekalde horretan burrukan. Maialen izatea gustatuko litzaidake. Uste dut bertsolaritzarentzat aukerarik onena litzatekeela. Baina porra irabazteko helburuarekin apustu egin behar banu, Egaña ez den norbaitengatik, Ametsengatik egingo nuke (Iñigo Izagirrerren iritzia plagiatur).

Oro har, ze moduzko maila dago? Estua izango al da finala?

Ba maila sekulakoa da. Pentsa, jendea horretarako bizi da. Edo horretatik behintzat. Edo horren inguruan. Punta-puntan dabilzanak pentsatzeko makina batzuk dira eta prestatuta joango dira. Bertso-maila ikaragarria izango da, gozatuko da. Ea formaz eta edukiz harritzen gaituzten.

Zu kasualitatez sartuko bazina, ze litzateke zuretzat?

Marroi ikaragarria! Bertso-kera ona dudaren seinale litzateke aldi berean, eta alde horretatik ohore handi bat, baina, printzipioz marroi bat. Baina lasai, kasualitate handiegia litzateke eta hori!

Hau da guztia, beste ezer komentatu nahi?

Aupa Muñoa eta Agirre! •



Bigarren aldiz kantatuko du Miren Artetxek Euskal Herriko Txapelketa Nagusian.

“ Bertso eskolan hasi nintzen, talde polita zen, lehenengo bertso-parrandak iritsi ziren... eta akabo, konturatzeko bertsotan nenbilen